

GOBERNU BATZARRA

2007.12.03

Alkatea:

Jokin Bildarratz Sorron

Zinegotziak:

**Jokin Azkue Arrastoa
Olatz Peon Ormazabal
Onintza Lasa Arteaga
Yurre Peñagarikano Zubeldia
Andoni Iturzaeta Arbillaga**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila zazpiko abenduaren 3an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Hainbat langilek egindako soldata igoera eskaera.

3.- Wed guneei diru laguntzak.

4.-Tolosako EZ.5 “Beotibar kalearen luzapena” Eremuko 2. JU-KO konpentsazio proiektuaren aldaketa onartzea.

5.-Zelai ibaiaren ibilgua berreskuratzeko proiektua. Hasierako onspena.

6.-Euskal Herria plazako zentro sozialaren gastu-sarreraren likidazioa.

7.- 30.zenbakia duen faktura- zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2007ko azaroaren 26an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Hainbat langilek egindako soldata igoera eskaera.

Udaleko 16 langilek, Carlos de Anta Lecuona, Sebastian Beguiristain Munduate, Lorenzo Ayestaran Mendizabal, Laureano Hidalgo Martin, Jose Luis Barainca Abaroa,

Jose M. Artieda Arregui, Izaskun Zuartegei Lozano, Mauro Marotias Irurzun, Esteban Pagola Iturriza, Nestor Moreno Ausin, Jose Juan Igarategi Balda, Dorleta Mendia Sansiñena, Angel Sanz Manrique, Zigor Oyarbide Otermin, Jesús M. Aguirrezabala Beloki, eta Juan José Seara Beguiristain, idatzi bat aurkeztu dute, 2007 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren baitan ordainsari masaren %1^a aplikatzea eskatzeko.

Honela, erantzun da jadanik, ordainsarien igoerak udaleko lan baldintzen akordioan adostu zirela eta han ezarritakoaren baitan ez dagokiola ordainsari igoerarik interesatuek aipatzen duten kontzeptu horiengatik.

Beraz, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak proposatuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatu 16 langileek egindako eskaera ez onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Giza Baliabide eta Udal antolakuntza departamentuari eta interesatuei ematea.

3.- Wed guneei diru laguntzak

Gaia erabaki gabe geratu da hobeto aztertzeko eta departamentu buruari behar diren azalpenak eskatzeko.

4.-Tolosako EZ.5 “Beotibar kalearen luzapena” Eremuko 2. JU-KO konpentsazio proiektuaren aldaketa onartzea.

<p>Ikusita Construcciones Aitz-Ondo, S.A., delakoak 2007ko urriaren 23an aurkeztu duen dokumentua. Hau da: EZ.5 “Beotibar kalearen luzapena” eremuko 2. JU-ko Konpentsazio Proiektuaren Aldaketa.</p> <p>Eta ikusita, gaiari buruz Hirigintza Teknikariak egin duen txostena eta batzordearen proposamena, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,</p> <p style="text-align: center;">ERABAKI DU</p>	<p>Visto el Documento de Modificación del Proyecto de Compensación de la U.E. 2 del área RE.5 “Prolongación Beotibar” de Tolosa, presentado por Construcciones Aitz-Ondo, S.A., con fecha 23 de octubre de 2007.11.27.</p> <p>Y de conformidad con el informe técnico emitido al respecto, así como con el dictamen de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,</p> <p style="text-align: center;">ACUERDA</p>
--	---

<p>LEHENA.- Jon Orue-Etxebarria Iturri eta Julen Mendoza Perez Abokatuek egin eta Construcciones Aitz-Ondo, SA-k, sustatzen duen dokumentu honi: EZ.5 “Beotibar kalearen luzapena” eremuko 2. JU-ko Konpentsazio Proiektuaren Aldaketa.</p> <p>BIGARREN.- Onarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.</p> <p>HIRUGARREN.-Documento publikoa jaulkitzea, hirigintzaren Kudeaketarako Arautegiko 113. artikuluan exijitutako baldintzetan, Jabetza Erregistroan inskribatua izan dadin, Hirigintzaren Kudeaketarako Arautegiko 174. artikuluko 3. eta 4. atalean aurreikusitakoaren arabera.</p>	<p>PRIMERO.- Aprobar definitivamente la Modificación del Proyecto de Compensación de la U.E. 2 del área RE.5 “Prolongación Beotibar” de Tolosa, promovido por Construcciones Aitz-Ondo, S.A, y redactado por los Abogados D. Jon Orue-Etxebarria Iturri y D. Julen Mendoza Perez.</p> <p>SEGUNDO.- Publicar dicha aprobación en el B.O. de Gipuzkoa.</p> <p>TERCERO.- Emitir documento público, con los requisitos y formalidades exigidos por el art. 113 del Reglamento de Gestión Urbanística, a efectos de su inscripción en el Registro de la Propiedad conforme lo dispuesto en los apartados 3 y 4 del art. 174 del Reglamento de Gestión Urbanística.</p>
---	--

5.- Zelai ibaiaren ibilgua berreskuratzeko proiektua. Hasierako onespena.

<p>Ikusita, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak sustatzen duen Proiektu hau: Zelai Ibaiaren Ibilgua Berreskuratzeko Proiektua, Manuel Jimenez Arkitektoak eta Pedro Azkue ingeniariak idatzi eta 2006ko abendjuko data duen Exekuzio Proiektua, hain zuzen ere.</p> <p>Eta ikusita proiektuari buruz udal arkitektoak idatzi duen txostena, eta Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeko 196. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Gobernu batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,</p> <p style="text-align: center;">ERABAKI DU</p>	<p>Visto el Proyecto de Recuperación del cauce del río Zelai, promovido por el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco y redactado por el Arquitecto D. Manuel Jimenez y el Ingeniero D. Pedro Azkue con fecha diciembre de 2006.</p> <p>Y visto el informe emitido al respecto por la Arquitecta Municipal, y de conformidad con lo establecido por el art. 196 de la Ley Vasca de Suelo y urbanismo del País Vasco, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,</p> <p style="text-align: center;">ACUERDA</p>
---	--

LEHENA.- Hasierako onespena ematea Zelai Ibaiaren Ibilgua Berreskuratzeko Proiektuari, ondorengo baldintzekin:

- a) Ibarrik Tolosara doan kalektore adarraren proiektua egokitu egin beharko da. Zelai ibaiaren proiektu honetara, beti ere, Igarondo eta Tolosana eremuetan onarturik dauden hirigintza plangintzak kontuan izanik.
- b) Ibarrik Tolosara doan kolektore adarraren obrak Zelai ibaiaren obra baldintzatzen duen neurrian eta bai batak bai besteak Zumardi Handiko, Igarondoko eta Tolosanako urbanizazio obrak baldintzatzen dituzten neurrian, Eusko Jaurkaritzari eskatzen zaio ahalik eta lasterren gauzatu ditzala goian aipaturiko bi obra horiek. Bestalde, 5 obra hauek beren artean interferentziak izango direla aurreikusiz, beharrezkoa izango da inplikaturiko guztien arteko koordinazioa.
- c) Zubi berriaren eraikuntzaren inguruan hitzez harturiko konpromisoak (gaur egun dagoen zubia ordezkatzek izango lukeen kostua beregain hartzea). Eusko Jaurjaritza eta udalaren arteko hitzarmen batetan jaso beharko dira.
- d) Zubi zaharra babestu beharko da obran zehar.
- e) Zumardi Handiko landaretza

PRIMERO.- Aprobarekin, con carácter inicial, el Proyecto de Recuperación del cauce del río Zelai, con el siguiente condicionado:

- a) El proyecto del ramal del colector que se dirige de Ibarra a Tolosa deberá adaptarse a este proyecto del río Zelai, teniendo en cuenta, en todo caso, los planes de urbanización aprobados para las áreas de Igarondo y Tolosana.
- b) Se solicitará al Gobierno Vasco que ejecute, lo antes posible, las obras del ramal de colector Ibarra-Tolosana y del río Zelai, en la medida en que las primeras afecten a la segunda, y las dos, a su vez, a la urbanización de las áreas del Prado Grande, Igarondo y Tolosana. Por otra parte, previéndose que haya interferencias entre estas 5 obras, se ve necesaria la coordinación de todos los implicados.
- c) Los compromisos verbales adoptados sobre la construcción del nuevo puente (asumir el costo de la sustitución del puente existente actualmente) deberán ser formalizados en un convenio entre el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento.
- d) El puente viejo deberá estar protegido durante la ejecución de las obras.
- e) Se protegerán durante las

<p>(proiektuaren arabera eliminatzen dena izan ezik) eta eraikitako elementuak babestu beharko dira obran zehar.</p> <p>f) Obrak gauzatu aurretik dagokion txosten arkeologikoa egin beharko da Igarondoko burdinolaren inguruan.</p> <p>g) Ibilgu berriak potentzialki kontaminatutako lurak hartzen dituen neurrian, eremu honetan lur mugimendurik egin aurretik 1/2005 legean zehazturiko tramiteak bete beharko dira.</p> <p><u>BIGARREN.</u>- Proiektua jendaurrean jartzea 20 egunez, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.</p> <p><u>HIRUGARREN.</u>- Herritarrei azalpenak emango zaizkie proiektuaren eta desagertuko diren zuhaitzen inguruan. Lan hau Antton Lekuonari aginduko zaio.</p> <p><u>LAUGARREN.</u>- Eusko jaurlaritzari informazioa eskatzea obra hau gauzatzeko okupatu behar diren lurren inguruan, udalak lur horiek Eusko Jaurlaritzaren eskuetan jarri ahal izateko.</p>	<p>obras la vegetación y los elementos construidos del Prado Grande (salvo lo eliminado conforme al proyecto).</p> <p>f) Se deberá elaborar el informe arqueológico relativo a la ferrería de Igarondo, previo a la ejecución de las obras.</p> <p>g) En la medida en que el nuevo cauce ocupe suelo potencialmente contaminado, antes de efectuar cualquier movimiento de tierras en dicha área deberá procederse a la tramitación de lo establecido por la Ley 1/2005.</p> <p><u>SEGUNDO.</u>- Someter el expediente a información pública durante 20 días, para que pueda ser examinado y presentadas las alegaciones procedentes.</p> <p><u>TERCERO.</u>- Informar a la ciudadanía acerca de este proyecto y de la eliminación de árboles que su ejecución conlleva. Se encomendará esta labor al funcionario municipal D. Antton Lekuona.</p> <p><u>CUARTO.</u>- Solicitar información al Gobierno Vasco acerca del suelo a ocupar para la ejecución de este Proyecto, a fin de que el Ayuntamiento pueda poner el mismo a disposición de dicho Gobierno.</p>
--	---

Dena den, goian aipatutako gaiarekin kordinazioa eskatu du alkateak eta zuhaitzarekiko behar den bezala informatzea herritarrei.

6.- Euskal Herria plazako zentro sozialaren gastu-sarreraren likidazioa.

Gobernu batzar honek, 2005eko martxoaren 21ean, Euskal Herria Plazako Zentro Sozialaren zerbitzuak gestionatzeko ardura lurramendi egoitzari eman zion.

Hori horrela, 2007ko urriko gastu-sarreraren likidazioa aurkeztu du lurramendi egoitzak.

Aipatu gastu-zerrenda ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKIDU

LEHENA. Aurkeztutako likidazioa onartzea.

GASTUAK	21.687,40
SARRERAK	4.405,00
APORTAZIOA	17.282,40

BIGARREN. Erabaki honen berri kontuhartzaileri eta lurramendi egoitzari ematea.

7.- 30. zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzailtzak 30. faktura-zerrenda, 152.014,94 €-koa, aurkeztu du.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKIDU

LEHENA. Aipatutako 30. faktura-zerrenda onartzea.

BIGARREN. Onarpenaren berri Kontuhartzailtzari ematea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA